

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahiko genizkizueke urtarrilaren 3ko *Guztion Alardea*-ren aurkezpenera hurbildu zineten guztioi. Hain sentsibilitate ezberdineko jendea konponbidearen aldeko ekitaldi batean elkarrekin ikustea guztiz pozgarria izan zen guretzat.

Gure ekitaldi horretan, “gainerako talde guztiek, modu esplizitu edo inplizituan, emakumea Alardean naturaltasunez ateratzen amaituko duela onartzen dutela” aipatu genuen besteak beste. Eta zinez esan nahi dugu, beraien hitzengatik, haiek hala onartzen zutela argi genuela. Hala ere, publikoki adierazi dutenez, *Alarde Fundazioa*-k zein *Hondarribiko Emakumeak* taldeak, ez dute adierazpen horrekin bat egiten. Beraz, guk ez dugu inongo arazorik egindako adierazpena baztertzeko, bakoitza bere adierazpenekin eroso sentitu dadin.

Horregatik, etorkizunera begira, gaizki ulertu hauek ekidin eta gardentasun osoz lan egiteko, akta edota ondorio adostu batzuen baitan jardutea iruditzen zaigu egokien.

Era berean, adierazi nahiko genuke guk talde ezberdinei adierazitako errespetua guztizkoa izan dela momentu oro, *Alarde Fundazioa*-ren egoitza erasotua izan zenean haiekiko babesa publikoki adierazi genuela ere bai. Bestalde, Hondarribiko Alardearen parte den gure taldeak, iritzia emateagatik, gezur hutsean oinarritutako zenbait eraso jasan behar izan ditu. Besteak beste, “baliabide ekonomiko eta publizitario nahiko” ditugula “hiritarrak banatu eta gaizki-izatea sortzeko” edota “Gipuzkoako Foru Aldundiak bidalitako bitartekariaren” planaren menpe gaudela.

Herrikideek eta gatazkaren parte diren taldeek soberan dakiten bezala, *Guztion Alardea* taldearen atzean, zuen Hondarribiko lagun, bizilagun eta senideak gaude soilik. Gainera, orain arte burututako ekitaldi guztiak gure poltsikotik ateratako diruarekin ordainduak eta gure irudimenetik sortutakoak izanik, mingarriak iruditzen zaizkigu hain modu erasokorrean egiten diren zenbait baieztapen.

Azkenik, *Alarde Fundazioa*-k “dezepzio” hitza erabili du, noizbait gurekiko ilusioa adierazi balu bezala. Horregatik, sakonki gustatuko litzaiguke *Alarde Fundazioa* kudeatzen duten pertsonen ulertzea, ez garela haien aurka aritzeko jaio, haien alboan konponbidera eramango gaituen ibilbidea egiteko baizik. Inposiziorik gabeko konponbide bat lortzeko aukera ezin hobea da *Guztion Alardea*.

Elkarrizketaren ildotik eta konponbidearen alde lanean jarraituko dugu.

Guztion Alardea,